tolosaldeko eta leitzaldeko hitza

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▸ Astelehena ▸ 2007-05-28 ▸ V. urtea ▸ 1.172. zenbakia ▸ www.tolosaldekohitza.info

TOLOSA ▸

## Abstentzio altua izan da



%42,08koa izan da ▸ 2

# Gehiengo osoarekin eutsi dio EAJk Tolosako alkatetzari

**TOLOSA ▸** EAk eta PPk zinegotzi bana galdu dute eta EB-Aralarrek bat irabazi; 9 zinegotzi EAJrentzat

**EAE-ANV ▸** Baliogabetu ez balute lau zinegotzi lortuko lituzke udalbatzan ezker abertzaleak ▸ 2-3

### UDAL HAUTESKUNDEAK TOLOSALDEAN ▸ EMAITZAK

| 2007 (2003) | EAJ (2003)[1] | EA (2003)[1] | EAE-ANV (2003)[2] | PSE-EE (2003) | EB-Aralar (2003)[3] | PP (2003) | Gainerakoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aduna | - (-) - (-) | - (-) - (-) | **159** (7) - (-) | - (-) - (-) | - (-) - (-) | 1 (0)- 2 (0) | - (-) 210 (7) |
| Alegia | - (-) 428 (4) | - (-) - (-) | **499** (8) 489 (5) | 67 (1) 30 (0) | - (-) 30 (0) | 33 (0) 26 (0) | - (-) - (-) |
| Alkiza | - (-) - (-) | - (-) - (-) | - (-) 153 (7) | - (-) - (-) | - (-) - (-) | 4 (0) 3 (0) | - (-) - (-) |
| Anoeta | 237 (2) 513 (9) | - (-) - (-) | **606** (7) 409 (4) | 42 (0) - (-) | 30 (0) 57 (0) | 33 (0) 54 (0) | - (-) - (-) |
| Areso | - (-) - (-) | - (-) - (-) | - (-) 146 (4) | - (-) - (-)- | - (-) - (-) | - (-) - (-) | 61 (2) 78 (3) |
| Berastegi | - (-) 326 (7) | **320** (5)- (-) | 237 (4) 269 (3) | - (-) - (-) | - (-) - (-) | 4 (0) 5 (0) | - (-) - (-) |
| Bidegoian | - (-) 146 (7) | **152** (7) - (-) | - (-) 132 (3) | - (-) - (-) | - (-) - (-) | 13 (0) 3 (0) | - (-) - (-) |
| Elduain | - (-) 52 (5) | - (-) - (-) | **78** (5) 94 (3) | - (-) - (-) | - (-) - (-) | 1 (5) 0 (0) | - (-) - (-) |
| Ibarra | **405** (4) 969 (7) | 384 (4) - (-) | 710 (5) [4]842 (5) | 233 (2) - (-) | 134 (1) 279 (2) | 86 (0) 157 (1) | - (-) - (-) |
| Ikaztegieta | 128 (3) 160 (7) | - (-) - (-) | **141** (4) 97 (3) | - (-) - (-)- | - (-) 0 (0) | 1 (0) 2 (0) | - (-) - (-) |
| Irura | - (-) 176 (6) | - (-) - (-) | 0 (0) - 341 (5) | 19 (0) - (-) | - (-) 27 (1) | 15 (0) 21 (0) | **592** (9)- (-) |
| Leitza | - (-) - (-) | 417 (3) 284 (2) | **851** (6) 533 (3) | - (-) - (-) | 138 (0) 485 (4) | 309 (2) 497 (5) | - (-) - (-) |
| Lizartza | - (-) 131 (7) | - (-) - (-) | 186 (6) 257 (4) | - (-) - (-) | - (-) - (-) | 27 (7) 10 (0) | - (-) - (-) |
| Orexa | - (-) - (-) | - (-) - (-) | 68 (1) 68 (1) | - (-) - (-)- | - (-) - (-) | 0 (0) 0 (0) | - (-) - (-) |
| Tolosa | **3.203** (9) 3.225 (8) | 988 (3) 1.979 (4) | 1.947 (5) 2.448 (4) | 746 (2) 801 (2) | 704 (2) 557 (1)) | 577 (1) 951 (2) | - (-) 153 (0) |
| Villabona | 829 (5) 1.654 (10) | - (-) - (-) | **1.088** (8) 830 (4) | 245 (1) 164 (1) | 204 (1) 251 (1) | 124 (0) 198 (1) | - (-) - (-) |
| Zizurkil | 323 (5) 720-(8) | 122 (2) - (-) | **476** (5) 449 (3) | 163 (2) - (-) - | 83 (1) 200 (2) | 61 (1) 130 (1) | - (-) - (-) |

### HAUTAGAITZA INDEPENDENTEAK AURKEZTU DITUZTEN HERRIAK[5] ▸

| Botoak (Zinego) | Abaltzisketa | Albiztur | Alkiza | Altzo | Amezketa- | Areso | Asteasu | Baliarrain | Belauntza | Berrobi | Gaztelu | Hernialde | Larraul | Leaburu | Orendain |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAJ | - (-) | - (-) | - (-) | 95 (3) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) |
| EAE-ANV | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | 154 (2) | - (-) | | - (-) | 90 (3) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | 132 (4) | 48 (1) |
| PSE-EE | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | 0 (0) | - (-) | 11 (0) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) | - (-) |
| PP | 0 (0) | 4 (0) | 5 (0) | 0 (0) | 1 (0) | - (-) | 9 (0) | 0 (0) | 3 (0) | 4 (0) | 1 (0) | 0 (0) | 0 (0) | 0 (0) | 1 (0) |
| Herritarrak (Abal.) | 126 (7) | | | | | | | | | | | | | | |
| Albizturko Herria | | **137** (7) | | | | | | | | | | | | | |
| Alkizako AE | | | **145** (7) | | | | | | | | | | | | |
| Altzolanean | | | | - (-) | | | | | | | | | | | |
| Batzarremuino | | | | **149** (4) | | | | | | | | | | | |
| Kimu Berri taldea | | | | | **243** (3) | | | | | | | | | | |
| Amezketarrok elk. | | | | | 177 (2) | | | | | | | | | | |
| Bai Asteasuri | | | | | | | **353** (5) | | | | | | | | |
| Herritarrak (Balia.) | | | | | | | | **53** (1) | | | | | | | |
| Lagun Artean | | | | | | | | | 61 (2) | | | | | | |
| Denok Bat | | | | | | | | | 51 (2) | | | | | | |
| Giroa | | | | | | | | | | 226 (4) | | | | | |
| Ortzadar | | | | | | | | | | 180 (3) | | | | | |
| Gazteluko herritar. | | | | | | | | | | | 49 (1) | | | | |
| Itturaundi | | | | | | | | | | | 79 (4) | | | | |
| Hernialdeko herrt. | | | | | | | | | | | | 195 (7) | | | |
| Herri aukera | | | | | | | | | | | | | 165 (5) | | |
| Bide berriak | | | | | | | | | | | | | | 118 (7) | |
| Batzar-Leku | | | | | | | | | | | | | | | 75 (4) |
| Areso Eraikiz | | | | | | **157** (5) | | | | | | | | | |

▸ Boto kopuruaren ondoren parentesi artean ageri den zenbakia alderdi bakoitzak lortutako hautetsi kopurua da. ▸ **1.** 2003an EAJ eta EA koalizioan aurkeztu ziren. 2003an bien artean lortutako emaitzak ageri dira parentesi artean. **2.** 2003an EAE-ANV ez zen aurkeztu. Orduan herri plataformek lortutako emaitzak dira parentesi artekoak. **3.** EB-Berdeak eta Aralar ez ziren elkarrekin aurkeztu 2003an. Bien emaitzak gehituta ageri dira parentesi artean. **4.** Herri horretan EAE-ANVren zerrenda baliogabetua dago, eta emaitza ofizialek ez dituzte kontuan hartzen hautetsi horiek.herri horietako gainontzeko alderdien kasuan emaitza ofizialek emandako zinegotzi kopurua ageri da. **5.** Herri horietan kandidatura independiente berri asko aurkezten direnez, aparteko taula batean jarri eta ez dira alderatu 2003ko emaitzekin.

| 30 HERRIAK 2007 (2003) | EAJ (2003) | EA | EAE-ANV | EB-Aralar | PSE-EE | PP | Gainerakoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 5.220 (9.242) | 2.383 (8.280) | 8.062 (8.276) | 1.293 (1.886) | 1.526 (1.002) | 1.311(2.104) | 61 (78) |

VILLABONA ▸

## EAE-ANV izan da irabazlea Villabonan

EAJ izan da bigarren eta jaitsiera handia izan du ▸ 4

LIZARTZA ▸



A. IMAZ

## PPk lortu du alkatetza, 27 boto eskuratuta

ANVk botoen %40a lortu du; PPk %26 ▸ 7

LEITZA ▸

## EAE-ANVk eskuratu du alkatetza

Aralarrek ez du zinegotzirik lortu ▸ 5

TOLOSA

# Gehiengo osoa EAJrentzat

## Alderdiak emandako datuen arabera, EAE-ANV izan da bigarren alderdi bozkatuena; EAk eta PPk zinegotzi bana galdu dute; EB-Aralarrek 1 irabazi du

N. LATABURU - I. TERRADILLOS

Atzoko udal hauteskundeen ostean, Eusko Alderdi Jeltzaleak gehiengo osoa lortu du Tolosan, 3.203 botorekin, eta botoen %50,16rekin. Hala, 17 tik 9 zinegotzi lortu dituzte, Jokin Bildarratz beste lau urtez alkate izango delarik.

Denera 14.544 herritar zeuden deituta hautes mahaietara, eta horietatik 8.423 herritarrek eman dute euren bozka, beraz, % 42,08ko abstentzioa izan da Tolosan, duela lau urte baino 10 puntu gehiago. Bozka txuriak 168 izan dira, % 2,63a, alegia.

Eusko Alkartasunak aurreko legealdian zituen 4 zinegotzietatik 1 galdu du, 3 eserleku beteko dituztelarik botoen %15,47arekin. PPk ere beste zinegotzi bat galdu du, beraz, bakarrarekin geratuko da datozen lau urteetan (%9,04). EAJ bezalaxe, lehen aldiz elkarrekin aurkezten zen Ezker Batua-Aralar koalizioak ere zinegotzi bat irabazi du, denera, bi izango direlarik zinegotziak udaletxean (%11,02). PSE-EEk, berriz, aurreko legealdiko zinegotzi kopurua mantendu du, bi, hain zuzen ere, %11,68arekin.

Emaitza hauekin, beraz, EAJk ez du beste alderdien babesaren beharrik Tolosako Udalean agintzeko. Boto kopuruan, ordea, alderdiak ez du igoerarik jasan, abstentzioa altuagoa izan delarik.

Gainontzeko alderdien boto kopuruari erreparatuz gero, EAk jaitsiera nabarmena izan du, 1.000 boto gutxiago jaso dituelarik; PPk ere jaitsiera izan du, 400 boto baino gehiago galdu dituelarik.

### UDAL HAUTESKUNDEAK

| 2007 (2003) EREMUA | EAJ | EA | EB-Aralar *1 | PSE-EE | EAE-ANV *2 / *3 | PP | Gainerakoak *5 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Erdigunea | 524 (773) | 186 (499) | 114 (93) | 106 (128) | 395 (394) | 102 (310) | - (43) |
| Alde Zaharra-Belate | 243 (237) | 70 (122) | 53 (66) | 85 (89) | 162 (261) | 53 (95) | - (16) |
| Baserri auzoak-San Esteban | 633 (525) | 194 (349) | 189 (74) | 211 (101) | 230 (319) | 102 (121) | - (8) |
| Berazubi-Iurre Iurreamendi | 417 (368) | 107 (212) | 86 (61) | 100 (103) | 206 (241) | 38 (89) | - (28) |
| Bidebieta-Izaskun-Kondeko Aldapa | 350 (390) | 110 (253) | 81 (49) | 70 (80) | 233 (300) | 45 (99) | - (6) |
| Arramele-Santa Luzia | 797 (681) | 251 (407) | 120 (176) | 106 (219) | 545 (611) | 211 (174) | - (35) |
| Amaroz-Usabal | 239 (251) | 70 (137) | 61 (38) | 68 (81) | 217 (322) | 26 (63) | - (17) |
| GUZTIRA | 3.203 (3.225) | 988 (1.979) | 704 (557) | 746 (801) | 1.978 (2.448) | 577 (951) | - (153) |

*1. 2003ko hauteskundeetan EB bakarrik aurkeztu zen. *2. EAE-ANVk emandako datuak dira. *3. 2003ko hauteskundeetan ez zen aurkeztu. Agertzen diren datuak Tolosa Bizirik-ek eman zituen datuak dira. *5. Partido Karlistari dagozkio botoak. Aurten ez dira aurkezten. 2003an, boto txuriak 116 eta baliogabeak 143; abstentzioa %32,6koa.



**Jokin Bildarratz.**
EAJ.
44 urte, politikaria.



**Olatz Peon.**
EAJ. 37 urte,
gizarte laguntzailea.



**Joxelu Andueza.**
EAJ. 52 urte,
administrari komertziala.



**Yurre Peñagarikano.**
EAJ. 34 urte, turismoan diplomatua.



**Jokin Azkue.**
EAJ. 46 urte,
psikologoa.



**Jon Aldazabal.**
EAJ. 40 urte,
abokatua.



**Ainhoa Etxeberria.**
EAJ. 38 urte,
administraria.



**Aitzol Arozena.**
EAJ. 35 urte,
karrozaria.



**Joxe Agustin Arrieta.**
EAJ. 54 urte,
irakaslea.



**Onintza Lasa.**
EA. 34 urte,
parlamentaria.



**Andoni Iturzaeta.**
EA. 28 urte, zientzia politikoetan lizentziatua.



**Josemi Gomez.**
EA. 52 urte,
funtzionaria.



**Oscar Renedo.**
PSE-EE.
48 urte, politikaria.

**Jose Luis Vilanova.**
PSE-EE.



**Enrike Torquemada.**
EB-Aralar. 36 urte,
abokatua.



**Inaki Irazabalbeitia.**
EB- Aralar. 50 urte. Kimika zientzietan doktorea.



**Anjel Yañez.**
PP.
73 urte, jubilatua.

### EAE-ANVren emaitzak

EAE-ANVren zerrendak baliogabetu zituzten Tolosan. Hala eta guztiz ere alderdiko zerrendagaiek euren alderdiaren aldeko bozka eskatu zuten eta jarraitzaileek erantzun egin dute. Hala, arduradunek luzaturiko emaitzen arabera, 1.947 boto lortu ditu ezker abertzaleak. Hala, 4 zinegotzi eskuratu ditu ANVk, herriko bigarren indar politikoa izan delarik. Boto kopurua osotara kontutan hartuta, beraz, hauxe izango litzateke Udalaren osaketa: EAJk 8 zinegotzi; EAE-ANVk 4; EAk 2; PSE-EEk 1; EB-Aralar 1; eta PPk 1.

Atzoko hauteskundeen datu esanguratsua abstentzioa izan zen, duela lau urte izan zena baino 10 puntu altuagoa izan baitzen.

### EAE-ANV-REN HAUTETSIAK



**Antton Izagirre.**
Irakaslea.



**Eider Elduaien.**
Kazetaria.



**Hektor Espin.**
Arkitektoa.



**Silvana Ostiza.**
Hezitzailea.

## HAUTETSIAK

| Emaitza ofizialak | 1987 | 1991 | 1995 | 1999 |
|---|---|---|---|---|
| EAJ | 2 | 3 | 4 | 7(EAJ-EA) |
| EA | 5 | 6 | 6 | - |
| PSE-EE | 1 (PSE) | 1 (PSE) | 1 | 1 |
| EB-Aralar | - | - | - | - |
| HB-EH | 5 | 5 | 4 | 7 |
| PP | 1 | 1 | 2 | 2 |
| EE | 3 | 1 | - | - |

| Zinegotzi ofizialak | 2003 | 2007 | EAE-ANVrekin 2003* | EAE-ANVrekin 2007 |
|---|---|---|---|---|
| EAJ | 8 | 9 | 6 | 8 |
| EA | 4 | 3 | 4 | 2 |
| PSE-EE | 2 | 2 | 1 | 1 |
| EB-Aralar | 1 | 2 | 1 | 1 |
| EAE-ANV* | - | - | 4 | 4 |
| PP | 2 | 1 | 1 | 1 |
| Besteak | - | - | - | - |

***1.** 2003ko udal hauteskundeetan EAJ eta EA ez ziren koalizioan aurkeztu. 2003an biek banaka lortutako emaitzak ageri dira. ***2.** 2003ko udal hauteskundeetan EAE-ANV ez zen aurkeztu. Hauteskunde haietan Tolosa Bizirik-ek lortutako hautetsiak dira 2003ko zutabekoak. ***3.** Ezker Batua-Berdeak eta Aralar ez ziren elkarrekin aurkeztu 2003an. Bien emaitzak gehituta ageri dira parentesi arteko boto kopuruan.

## 2003ko hautetsiak




**Tolosa Bizirik**ek 5 zinegotzi izango lituzke beraien datuen arabera

## 2007ko hautetsiak




**EAE-ANV**ek 4 zinegotzi izango lituzke beraien datuen arabera

**JOKIN BILDARRATZ** ▸ EAJ-REN HAUTAGAIA

# «Adostasunaren eta elkarrizketaren bidean jarraituko dugu lanean»

Gehiengo osoa lortu du EAJk Tolosan. Jokin Bildarratz beste lau urtez alkate izango da, beraz, udaletxean.

**Gehiengo osoa lortu duzue. Zer balorazio egiten duzu?**

Oso gustura gaude, emaitza oso onak izan dira. Duela lau urteko zenbaki beretsuak izan dira. Orain arteko legealdian adostasunaren bidea jorratu dugu eta horrela jarraituko dugu. Zinegotzi bat gora edo behera ez du gure lana aldatuko, elkarrizketa eta adostasunaren bidea, alegia.

**Baina lasaitasuna emango dizu zinegotzi horrek.**

Onartu berri dugu Plan Orokorrak finkatuko ditu Tolosaren datozen zortzi urteak. Hori ez da aldatuko eta adostasunaren bidean jarraituko dugula argi dugu.

**Abstentzioa, hala ere, aurrekoan baino altuagoa izan da.**

Azken hilabeteetan politikan izandako zatiketaren ondorioa izan da. Nik uste dut jendea pitin bat nazkatuta dagoela konfliktoaz. Une hauetan panorama politiko zaila geratu da Gipuzkoan.

**Udalaren osaketa ekainaren 16an izango da.**

Konplizitatea topatzea ezinbestekoa da. Adostasuna bilatuko dugu, ANV hor dago ere.



I.T.

**ANV aipatu duzu. Zer balorazio egiten duzu euren emaitzaz?**

Emaitzak ikusirik, gizarteak markatu dio ANVri, jaitsiera handia izan baitu. Jendeak kanbioa eskatu dio. Izan ere, elkarrizketaren bidean gauzak posible dira. ◂

**ANTTON IZAGIRRE** ▸ EAE-ANV-REN HAUTAGAIA

# «Ez dugu onartuko beste lau urte Udaletik kanpo»

Tolosako EAE-ANV baliogabetu egin zituzten. Beraiek emandako datuen arabera, 1978 boto lortu dituzte, orain 4 urte baino ia 500 boto gutxiago. Antton Izagirre alkategaiak datuen inguruko balorazioa egin du.

**Emaitzen inguruan zein da egiten duzuen hausnarketa?.**

Esanahi berezia dute lortu ditugun 2.000 bozkek, kontuan izanik baliogabetu egin zituztela gure zerrendak. Abstentzioa izugarria izan da, beraz, emaitza oso ona da. Herritarrek arazo politikoari konponbidea eman nahi diotela erakutsi dute, babesa eman digute horretarako. Bestalde, herri mailan gure presentzia nahi dutela ere argi geratu da.

**Zer egingo duzue datozen egunetan?**

Alderdi politikoekin bilduko gara gure emaitzak errespeta ditzaten eskatzeko. Gure borondatea herritarrei aurkeztu diegun herri programa lantzea da eta uste dugu bidea badagoela horretarako. Ez dugu onartuko beste 4 urte Udaletik kanpo geratzea.

**Beste alderdien emaitzak nola baloratzen dituzue?**

EAJren kasuan, alkatetza iza-



N.L.

teak babesa eman dio, eta herritarrek antza boto baliotsua ikusi dute gestiorako, EArekin alderatuz, EAren boto ugari EAJra pasa baitira. EB-Aralar koalizioaren kasuan, berriz, boto gehiago lortu dituzte, baina zinegotzi kopuru bera. ◂

**ONINTZA LASA** ▸ EA-REN HAUTAGAIA

# «Botoen kopurua jaitsi izanak gogoeta merezi du»

Boto kopurua jaitsi du EAk, eta zinegotzi bat ere galdu du Onintza Lasaren alderdiak. Emaitzen inguruan balorazioa egin du Lasak.

**Emaitzen zer-nolako balorazio egiten duzu?**

Gure alderdiak, egun gauden egoeran, osoko bilkuraren osaketaren baitan, bigarren indarra izaten jarraitzen du eta orain arte egin dugun bezala gogor eta gogotsu jarraituko dugu lanean. Dena den, bozka kopurua jaitsi izanak gogoeta bat merezi du eta egingo dugu astiroago.

**EAJk gehiengo osoa lortu du.**

Hauteskunde hauetan Udaleko banaketa aldatu egin da eta horren inguruan pentsatu beharko dugu. Ez dakigu aurrerantzean zer eratako politika egingo duten. Gobernua osatzea ondorengo egunetan jorratuko dugun gaia izango da.

**EAE-ANVk izan dituen emaitzen inguruan, nolako hausnarketa egiten duzue?**



N.L.

Argi dagoena zera da, herritar kopuru handi batek bozkatu duela EAE-ANV, hori ezin da ahaztu. Ilegalizatuta daude Tolosan baina ez gugatik, eta ikusiko da zer gertatzen den aurrerantzean. Guk aurreko legealdian beti ireki izan dizkiegu ateak lanerako eta aurrera begira ere horrela jarraituko dugu. ◂

VILLABONA ▸

# EAE-ANV irabazle

Ezker abertzaleak 6 zinegotzi lortu ditu; EAJk bost zinegotzi; PSE-EEk zinegotzi bat eta EB-Aralarrek zinegotzi bat; «ezusteko ona» izan dela dio Arrietak

**IMANOL GARCIA**

EAE-ANVk irabazi du Amasa-Villabonan 1.088 boto lortu ondoren. Sei zinegotzi ematen dizkio horrek. EAJk 829 boto lortu ditu eta bost zinegotzi. PSE-EEk eta EB-Aralarrek bakoitzak zeukan zinegotzia mantendu dute. PPk bere zinegotzia galdu du. Abstentzioa datu esanguratsua izan da, %44koa izan baita.

Maixabel Arrieta EAE-ANVren zerrendaburuak azaldu duenez, «ezustekoa ona» izan da lortutako emaitza. «Berriz ere Udalean gaude eta gure lanarekin jarraituko dugu», gaineratu du Arrietak. Sei zinegotziek ez diete ematen gehiengo osoa eta, beraz, alkatetza ez dago guztiz ziurtatuta. Emaitzen gaineko balantzea egin du Bakartxo Tejeria EAJren zerrendaburuak eta esan duenez, «abstentzioak ez gaitu asko lagundu». Emaitzak erdira jaitsi zaizkie 2003an EArekin batera joan ostean.

**UDAL HAUTESKUNDEAK ▸**

| 2007 (2003) | EAJ*1 | EA*1 | EB-Aralar*2 | PSE-EE | EAE-ANV*3 | PP | Besteak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia 1 | 330 | - | 68 | 65 | 423 | 44 | - |
| Barrutia 2 | 214 | - | 71 | 116 | 314 | 48 | - |
| Barrutia 3 | 285 | - | 65 | 64 | 351 | 32 | - |
| GUZTIRA | 829 (1.654) | - (1.654) | 124 (164) | 245 (230) | 1088 (830) | 124 (184) | - |

▸ *1. 2003ko hauteskundeetan EAJ eta EA koalizioan joan ziren. ▸ *2. 2003ko hauteskundeetan EB bakarrik aurkeztu zen. ▸ *3. 2003ko hauteskundeetan ez zen aurkeztu. 2003ko agertzen diren datuak Amasa-Villabonako Abertzaleak-ek eman zituenak dira.


**Maixabel Arrieta.** EAE-ANV. 61 urte, abokatua.


**Remi Aiestaran.** EAE-ANV. 25 urte, saltzailea.


**Josune Arretxe.** EAE-ANV. 25 urte, administraria.


**Hautsi Izagirre.** EAE-ANV. 29 urte, saltzailea.


**Maialen Abaigar.** EAE-ANV. 22 urte, irakaslea.


**Julito Iturbe.** EAE-ANV. 63 urte, jubilatua.


**Bakartxo Telleria.** EAJ. 36 urte, abokatua.


**Iker Ariznabarreta.** EAJ.


**Alaitz Etxabe.** EAJ.


**Pedro Zendoia.** EAJ.


**Edurne Sanchiz.** EAJ.


**Maria Jose Sanchez.** Ezke Batua-Aralar. 48 urte, langilea.


**Joseba Iñaki Uribe.** PSE-EE.

ALEGIA ▸

## EAEk 499 boto lortu ditu, lehen aldiz EAJ aurkeztu ez den hauteskundeetan

Aitor Sarasola alkateak «gogotsu» ekingo dio lanari, eta ildo beretik jarraituko du Udalean

**NEREA URBIZU**

Alegian EAEk lortu du boto gehien: hortaz, Aitor Sarasola izango da alkatea, gutxienez, hurrengo lau urteetan zehar. Alkate berriak indar nagusia izan dela adierazi du, 499 boto eskuratu baitituzte.

Nabarmendu duen datua izan da, halaber, beti EAJ-EA koalizioa aurkeztu dela, baina aurten ez da izan. Beraz, alderdi honi bozka ematen zion jendeak zeini bozkatu dion ez dute oso argi: «PSE-EEk 67 boto jaso ditu, eta hortaz, udaletxean zinegotzi bat izango du, inoiz izan ez duena, alegia. PPk 33 jaso ditu, eta egia esan, harritu egin gaitu, ez genuen espero. Egia esan, ez dakigu nola interpretatu».

189 boto zuri izan dira Alegian, eta horien artean EAJren boto-emaleen botoak daudela pentsa daiteke, herri honen kasuan ez baita EAEren zerrenda baliogabetu.

Alegian azken lau urteetan izan da udalean ezker abertzalea, eta alkate berriak esan bezala, «ildo berdinetik jarraituko dugu lanean. Ni alkate izateko prest nengoen, eta gogotsu ekingo diot lanari. Bagenekien irabaziko genuela, baina EAJ ez egotearekin, ez genekien jendeak nola erreakzionatuko zuen». Orain arteko politikarekin jarraituko dute lanean Udalekoek, eta lau urte hauetan bezala, «jendea erabat inplikatzea nahi dugu, Udalean jendeak ere parte hartzea eta orain arte bezala, irekia izatea». Hirigintzako proiektuekin aurrera jarraituko dutela adierazi zuen Aitor Sarasolak.

### Kirol zinegotzia

Azken legealdian Sarasola kirol zinegotzia izan da, eta berak nahi izanda, Olatz Amundarainen ordez alkatea izango da Alegian. Berak esan bezala «herritarren babesa ikusi dugu, eta denon laguntza baliagarria izango da».


Aitor Sarasola kirol zinegotzia izan da orain arte. N. URBIZU

**HAUTETSIAK ▸**

Emaitza ofizialak

| | 2007 | 2003 |
|---|---|---|
| EAJ | - | 4 (EAJ + EA) |
| EA | - | |
| EAE-ANV | 8 | 5* |
| PSE-EE | 1 | 0 |
| PP | 0 | 0 |

▸ *. 2003ko udal hauteskundeetan EAE-ANV ez zen aurkeztu. Hauteskunde haietan ATEA plataformak lortutako emaitzak ageri dira bertan.



IBARRA ▸

## EAE-ANVk lortu du boto gehien, baina ezingo du eskuratu ofizialki alkatetza

Zerrenda baliogabetu zuen Espainiako Auzitegi Gorenak; EAJk eta EAk launa zinegotzi izango dituzte, eta PPk berea galdu du

**ERREDAKZIOA**

EAE-ANV izan da boto gehien lortu dituen alderdia Ibarran, 710 zehazki. Datu horiek bost zinegotzi emango zizkieten, baina ofizialki ez du eskuratuko alkatetza, Espainiako Auzitegi Gorenak zerrenda baliogabetu baitzuen. Txelo Romeo izango da, beraz, alkate EAJk lortutako 405 botoekin. Ofizialki 4 zinegotzi izango ditu. EAk 384 boto eskuratu ditu eta lau zinegotzi ere. PSE-EEk 233 boto eta bi zinegotzi eta EB-Aralarrek 134 boto eta zinegotzi bat. PPk zeukan zinegotzia galduko du.

Ibarrako EAE-ANVk balantze «oso positiboa» egin du emaitzen inguruan, «kontuan izanda zein baldintzetan parte hartu dugun». Hauteskundeak «antidemokratikoak» izan direla diote eta «herriaren borondatea errespetatzeko bitarteko juridiko guztiak» aztertzeko eskatu du.

**HAUTETSIAK ▸**

| Emaitza ofizialak | 2007 | 2003 | EAE-ANV kontuan hartuta | 2007 | 2003 |
|---|---|---|---|---|---|
| EAJ | 4 | 7 (EAJ + EA) | EAJ | 3 | 5 (EAJ + EA) |
| EA | 4 | | EA | 2 | |
| EAE-ANV | - | - | EAE-ANV | 5 | 5 |
| PSE-EE | 2 | 2 | PSE-EE | 2 | 1 |
| EB-Aralar | 1 | 1 | EB-Aralar | 0 | 0 |
| PP | 0 | 1 | PP | 0 | 0 |
| Besteak | - | - | Besteak | - | - |

▸ *1. 2003ko udal hauteskundeetan EAJ eta EA koalizioan aurkeztu ziren. *2. 2003ko udal hauteskundeetan EAE-ANV ez zen aurkeztu. Hauteskunde haietan Uzta plataformak emandako emaitzak dira ageri direnak. *3. 2003an Ezker Batua-Berdeak eta Aralar ez ziren elkarrekin aurkeztu. 2003ko datua Ezker Batua-Berdeak-eri dagokio.


**Consuelo Romeo.** EAJ. 50 urte, alkatea


**Juan Luis Cia.** EAJ.


**Victoria Rodriguez.** EAJ.


**Jose Ig. Aiestaran.** EAJ.


**Luis Ig. Alonso.** EA. 60, analista.


**Milagros Garcia Itur.** EA. 44 urte, aerobik irakaslea


**Itziar Jauregi.** EA. 50 urte, irakaslea.


**Juan Ig. Arozena.** EA. 42 urte, arte grafikoak.


**Aitor Gonzalez.** PSE-EE.


**Javier Placeres.** PSE-EE.


**Francisca Sanchez.** EB-ARALAR. 54 urte, administraria.

**EAE-ANV-REN HAUTETSIAK**


**Aitor Garmendia.** 32 urte, banatzailea.


**M. Jose Ruiz.** 55 urte, zerbitzuak.


**Hanot Karrera.** 26 urte, zerbitzaria.


**Edurne Urdanpilleta.** 26 urte, zerbitzaria.


**Iban Galarraga.** 26 urte, zerbitzaria.

LEITZA ▸

## EAE-ANVk izango du alkatetza, gehiengo osoa lortu eta gero

Sei zinegotzi lortuko ditu ezker abertzaleak; Aralarrek ez du ordezkaritzarik izango

**ERREDAKZIOA**

EAE-ANVk gehiengo osoa lortu du Leitzan. 851 boto lortu ditu eta sei zinegotzi. Xabier Zabalo izango da, beraz, alkate hurrengo lau urteetarako. Bigarren alderdia EA izan da, 417 botorekin, eta hiru zinegotzi izango ditu. UPNk 309 boto eskuratu ditu eta horrek bi zinegotzi emango dizkio. Aralarrek 138 boto jaso ditu eta ordezkaritzarik gabe gelditukoda.

Nabarmentzekoa da ezker abertzaleak izan duen gorakada hauteskunde hauetan. Orain lau urte 533 boto eskuratu zituen ilegalizatuta zegoen zerrendak. Boto horiek kontuan hartuta hiru zinegotzi lortuko zituen eta oraingoan bikoiztu egin dute kopuru hori.

Datu horiek Aralarrek lortutakoen kontrakoak dira. Orain lau urte 485 boto izan zituen. Dirudienez, Aralarri botoa eman zioten kopuru handi batek oraingoan EAE-ANVri bozkatu diote. Alkatetza izatetik Aralarrek ordezkaritza ez izatera pasatu da lau urte hauetan. Bestalde EAk igoera nabaria izan du hauteskunde hauetan. Orain lau urte lortutako 284 botoetatik, atzo eskuratutako 417 botoetara pasatu da. Horrela, herriko bigarren indar bezala gelditu da. Datu horiek zinegotzi bat gehiago izatera eraman du, hau da, guztira hiru ordezkari Udalean.

UPNk bere aldetik, ia 200 boto gutxiago jaso du hauteskunde hauetan, hau da, 497tik 309ra. Beherakada honek bi zinegotzi izatera eraman du. Bigarren indarra bazen orain lau urte, oraingoan hirugarren indarra da.

Udal hauteskunde hauetako emaitzek orain arteko Udala guztiz eraldatuko dute, ofizialki ordezkaritzarik ez zuen ezker abertzaleak alkatetza hartu duelako eta lau urte hauetan alkatetza izan duen Aralarrek ez baitu izango ordezkaritzarik.

**HAUTETSIAK ▸**

Emaitza ofizialak

| | 2007 | 2003 | 2003* |
|---|---|---|---|
| EA | 3 | 2 | 2 |
| EAE-ANV | 6 | - | 3 |
| Aralar | 0 | 4 | 3 |
| UPN | 2 | 5 | 3 |
| Besteak | - | - | - |

▸ *2003ko udal hauteskundeetan EAE-ANV ez zen aurkeztu. Hauteskunde haietan Larrain plataformak emandako emaitzak dira ageri direnak.


Atzoko hauteskunde egunaren irudietako bat Leitzan. NAIARA GARZIA

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK ETA NAFARROAKO GOBERNUA

# Batzuk gora eta besteak behera

## Gipuzkoan lehen aldiz PSE-EEk lortu du bozka kopuru gehien, eta Nafarroan NA-BAIk izan du igoerarik nabarmenena; UPNk orain arteko gehiengo osoa galdu du

**NAFARROA ▸ 2007KO EMAITZAK**

| | LEITZA | ARESO | DENERA |
|---|---|---|---|
| EAE-ANV | - | 60 | - |
| EA | | - | - |
| PSN | 60 | 11- | 49.151 |
| UPN | 128 | 14 | 90.710 |
| IUN | 12 | 4 | 9.482 |
| NaBai | 388 | 77 | 51.253 |
| Aralar | | 0- | - |
| CDN | 10 | 45- | 9.382 |
| Gainerakoak | 5 | - | 3.055 |
| Zuriak | | 3 | |

**GIPUZKOA ▸ 2007KO EMAITZAK**

| | BOZKAK | DIPUTATUAK |
|---|---|---|
| EAJ | 71.800 | 16 |
| EAE-ANV | - | - |
| EA | 34.172 | 7 |
| PSE-EE | 76.865 | 16 |
| PP | 35.027 | 6 |
| EB-Aralar | 36.738 | 6 |
| Plazandreok | 1.773 | 0 |
| Gainerakoak | 1.014 | 0 |

ERREDAKZIOA

Nafarroako Parlamenturako osaketan UPNk lehenengo jarraitzen du. Atzo, botoen %70a kontatuta zegoenean 22 aulki zeramatzan, 2003. urtean baino bat gutxiago. 00:30ean 90.710 bozka zituen. Nafarroa Baik 4 aulki gehiago eskuratu ditu, eta guztira 12 lortu ditu. 51.253 nafarrek bozkatu zuten honen alde; %23,70ak. PSNk ere gora egin du aulki batekin. 2003. urtean 12 aulki bazituen, hurrengo 4 urteetan 13 izango ditu. 49.1551 herritar izan ziren alderdi honen aldekoak, beraz, parlamentuaren %22,70a osatuko du. CDNk behera egin du nabarmen, zituen bi aulkiak galduz, 9.382 bozka jasota. Honek esan nahi du, bozka eman dutenen %4,30ak eman diola botoa.

EBk 9.482 bozka jaso ditu, CDNk baino boto batzuk gehiago (%4,40). RNC-NOK alderdiak ez du aulkirik lortu, 3.027 bozka jaso baititu, eta %1,40a suposatzen du horrek. Azkenik, aipatu behar, EKAk ez duela aulkirik lortu, 328 bozka lortu baititu (%0,20).

PSE-EEk Gipuzkoan botuen gehiengoa lortu du, dena den EAJko diputatu kopuru bera izango du. Lehen aldiz lortu du PSEk Gipuzkoako foru hauteskundeetan indar nagusia izatea. Batzar Nagusietan 16 ordezkari izango ditu, 76.865 bozkak eman diote horretarako eskubidea.

Baliogabetutako EAE-ANVk 72.880 bozka lortu ditu, hau da, %20a baino gehiago.



Herritarrak bozkatzen HITZA

IRURA ▸

# Marimi Ugaldek eutsi egin dio alkatetzari

## PP eta PSE-EEren bozkak ez dira %5era iritsi EAE-ANVk lortu dituen 592 boto zuriei esker

ERREDAKZIOA

Iruran aurreko lau urteetako alkate eta zinegotziek jarraituko dute indarrean, 592 bozka zuri atera baitituzte, eta honen arabera Marimi Ugalde izango da alkate berriro. Ugalde lau urtez alkatea izan da eta EAE-ren zerrendaburua zen hauteskunde hauetarako. EAE-ANV-ren ilegalizazioaren aurrean Irurako Eusko Abertzale Ekintzak boto zuria erabiltzea erabaki zuen. Honen arabera, 514 boto zuri behar zitutzten Udalean ez PSE-EEk, ez PPk ordezkaritzarik ez izateko eta atzo 592 lortu zitutzten. Beraz, aurreko legealdiko 9 zinegotziek indarrean jarraituko dute.

Marimi Ugaldek emaitza jakin ondoren bere iritzia eman zuen: «herriak du hitza esan genuen eta hori gertatu da. Oso pozik gaude eta eskerrak eman behar diogu herriari. Oso ondo portatu da».

**IRURA ▸**

**Emaitza ofizialak**

| | 2007 | 2003* |
|---|---|---|
| EAJ-EA | - | 176 (6) |
| EAE-ANV | 0* | 341 (5) |
| PP | 15 | 21 (0) |
| PSE-EE | 19 | 27 (1) |
| ZURIAK | 592 (9) | 27 (1) |

▸ *1. 2003ko udal hauteskundeetan EAJ eta EA koalizioan aurkeztu ziren. 2003an bien artean lortutako emaitzak ageri dira parentesi artean. *2. 2003ko udal hauteskundeetan EAE-ANV ez zen aurkeztu. Hauteskunde haietan Ortzadar herri plataformak lortutako emaitzak dira parentesi artean ageri direnak. Zinegotzi kopurua, haien emaitzak kontuan hartuta

EAJ PNV
www.eaj-pnv.com
Eskerrik asko Ibarrako herritarrei!
egin behar dugu



ELDUAIN ETA LIZARTZA

# PPrentzat izango dira bi alkatetzak bozka kopuru gutxiena lortu duen arren

## Elduaienen bozka batekin, PPk bost zinegotzi lortu ditu eta Lizartzan 27 bozkekin zazpi zinegotzi lortu zituzten atzoko hauteskundeetan

ERREDAKZIOA

Elduaienen Alderdi Popularrak bozka bakarra nahikoa izan du alkatetza eta bost zinegotziak lortzeko. EAE-ANVk jaso ditu aldiz boto gehien, 78 guztira. Boto zuriak 24 izan dira eta baliogabeak 5. Azken lau urteetan EAJ-EA egon da baina udal hauteskunde hauetarako ez zuen zerrendarik osatzerik lortu.

Hauteskunde egunak hiru protagonista izan zituen atzo Lizartzan : PP, EAE-ANV eta tentsioa. PP, onartutako eta aurkeztutako hautagaitza bakarra, botoen %26 lortu zuelako eta Lizartzako alkatetza lortu duelako. EAE-ANV, atzo Lizartzan emandako botoen %40 inguru bere izenean emandako boto baliogabeak izan zirelako. Eta tentsioa, botoen kontaketan ertzain eta bizkartzain ugari egon zirelako eta tentsio uneak izan zirelako Ertzainen eta herritarren artean. Areto nagusian, PPko ordezkariaz gain, Mikel Azurmendi, Ermuko Foroko kidea egon zen atzo Lizartzan. Herriko EAEk jakinarazi duenez, «egoera hau Egibarrek herritarren gehiengoa errespetatu nahi ez duelako gertatu da».

Botoen kontaketa hasi aurretik zenbait herritarrek *Herritarren borondatea errespetatu. Putxerazorik ez!* zioten afixak zabaldu zituzten. Beste batzuk mahaiaren atzean jarri ziren, orduan ertzain bat aretora sartu zen eta ea dena ongi zihoan galdetu zion mahaiko lehendakariari. Tirabirak boto kontaketan etengabeak izan ziren atzokoan.


Lizartzan PPren ordezkaria egon zen botu kontaketan. ASIER IMAZ

### LIZARTZA

Emaitza ofizialak

| | 2007 | 2003* |
|---|---|---|
| EAJ-EA | 0 | 131 (7) |
| EAE-ANV | 186* | 257 (4)* |
| PP | 27 (7) | 10 (0) |
| ZURIAK | 142 | 10 (0) |

### ELDUAIN

Emaitza ofizialak

| | 2007 | 2003* |
|---|---|---|
| EAJ-EA | - | 52 (5) |
| EAE-ANV | 78* | 94 (3)* |
| PP | 1(5)- | 0 (0) |

***1.** 2003ko udal hauteskundeetan EAJ eta EA koalizioan aurkeztu ziren. 2003an bien artean lortutako emaitzak ageri dira parentesi artean. ***2.** 2003ko udal hauteskundeetan EAE-ANV ez zen aurkeztu. Hauteskunde haietan Eraikiz (Elduain) eta Axurdario (Lizartzan) herri plataformek lortutako emaitzak dira parentesi artean ageri direnak. Zinegotzi kopurua haien emaitzak kontuan hartuta.

ANOETA

# Periko Peñagarikano: «Lehen aldiz 600 bozkatik gora lortu ditu alderdi batek»

## EAE-ANVk eta EAJk osatuko dute Udala 7 eta 2 zinegotzirekin

ERREDAKZIOA

EAE-ANV izan da lehenengo indarra Anoetan, 606 botorekin. Honela, 7 izan dira alderdi honek lortu dituen zinegotziak. Honen atzetik EAJk 237 bozka atera ditu eta 2 zinegotzi. Beraz, alderdi hauetako zinegotzoak izango dira Udala osatuko dutenak. Hirugarren indarra PSE-EE izan da 42 botorekin. Azken bi alderdiak, berriz, PP eta Ezker Batua-Aralar izan dira, 33 eta 30 botorekin. Boto zuriak 12 izan ziren.


Periko Peñagarikano. I. GARCIA

Emaitza hauekin 1999ko hauteskundeetan bezala, Periko Peñagarikano izango da Anoetako alkate hurrengo 4 urteetan. «Lehen aldiz 600 bozkatik gora lortu ditu alderdi batek» azpimarratu du Peñagarikanok eta «baldintza berdinetan» EAEren indarra argi gelditu dela gehitu du. «Hauteskunde hauetan zehar lan talde bat gogor aritu da lanean Anoetan. Herriak, berriz, aurreko legealdian izandako gehiegikeriei modu honetan eman die erantzuna».

HERNIALDE

# Hernialdeko Herritarrek 195 bozka lortu dituzte

## 3 urte alkate eta zinegotzirik gabe egon eta gero, Igaro Balda Izagirre izango da alkate

ERREDAKZIOA

Hernialdeko Herritarrak alderdiak 195 bozka lortu ditu Hernialden. Bozka kopuru hauen arabera, 7 zinegotzi lortu ditu alderdi honek. Hernialdeko Herritarrak eta PP izan dira hauteskunde hauetan aurkeztu diren alderdi bakarrak, eta PPk bozkarik lortu ez duenez, Hernialdeko Herritarrak taldea izango da Udala osatuko duen bakarra. Igaro Balda Izagirre izango da, beraz, 3 urte alkaterik gabe egon eta gero, Hernialdeko alkatea.

2003. urtean Herritarrei Zabalduz kandidatura ilegalizatu ondoren, EA-EAJk 7 zinegotzi lortu zituen. Hauek kargua ez hartzea erabaki zutenez, aurreko legealdiko alkate eta zinegotziek lanean jarraitu zuten, 2004ko irailean dimisioa eskatu zuten arte. Ordudanik ez da osoko bilkurarik egin Hernialden, ez baitzegoen ez alkate eta ez zinegotzirik ere.

EAJ PNV
Zure konfiantzari esker Zizurkil berria eraikiko dugu.
Eskerrik asko zure babesarengatik.


tolosaldeko eta leitzaldeko
# hitza
ARGITARATZAILEA. Tolosa Herria Hedabideak S.L.
LEGE GORDAILUA. SS-0398-03
ZUZENDARIA. Noelia Lataburu
EGOITZA NAGUSIA. Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa
TELEFONOA. 943 65 56 95 FAXA. 943 65 00 18
LEITZA. Herriko plaza 1. 687 410 118
E-POSTA. tolosaldean@tolosaldekohitza.info
WEBGUNEA. www.tolosaldekohitza.info
TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.KO KIDEAK: BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko 77 gizarte eragile
HITZA-K BAI EUSKARARI
**Zuzendariordea.** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea.** Jon Mujika. **Publizitatea.** 661 678818. tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info. **Tolosa.** 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldekohitza.info. **Villabona-Aizt.** 687 410022. villabona-aiztondo@tolosaldekohitza.info. **Anoetaldea.** 687 410022 anoetaldea@tolosaldekohitza.info. **Ibarraldea.** 687 410032. ibarraldea@tolosaldekohitza.info. **Alegialdea.** 687 410034. alegialdea@tolosaldekohitza.info. **Leitzaldea.** 687 410118. leitzaldea@tolosaldekohitza.info.
ESKUALDEKO EGUNKARIA ▸ 2007ko maiatzaren 28a, astelehena ▸ V. urtea
'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil. Gipuzkoako Foru Aldundia

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena 12 hotzena 10 | BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...) 902 82 02 01

# Hemendik lau urtera arte

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▸ Normaltasunez eta ezohiko gertaerarik gabe joan zen atzoko eguna Tolosaldeko eta Leitzaldeko hautesmahaietan

ESTI EZEIZA

Erabaki beharrekoa erabakita dago jada; hamabost egunetako kanpainaren ondoren atzo erabaki zuten herritarrek zein izango den datorren lau urteetan beraien alkatea.

Lasaitasunez eta normaltasun osoz joan zen eguna. Goizean goizetik hasi zen jendea hauteslekuetara hurbiltzen, beraien bozka emateko. Batzuk ohikoa baino goizago, gero Iruñera joan eta Erreala ren porrota ikusi ahal izateko.

Batzuek EHNA eskuetan zutela bozkatu zuten, nahiz eta zenbait herritan oztopoak jarri, eta agiri horrekin ezin bozkatu ahal izan. Bestalde, EAE-ANVren zerrenden baliogabetzea zela eta, herri batzuetan protestak ere egin zituzten.


Albizturko hautesmahaiean herritar bat bozkatzen. E. EZEIZA


Tolosan ez zuten utzi EAE-ANVren bozka paperak jartzen. N.L.


Leitzako EAE-ANVren hautagaia, Xabier Zabalo, bozka ematen. N.G.


Ibarran sinadura bilketa egin zuten. ASIER IMAZ


Herritarrek euren bozka eman zuten. N.L.


IES Hernani BHI
A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550
e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com
ELEKTRIZITATEA
Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)
Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)
MEKANIKA
Mekanizazioa (Erdi Maila)
Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa) (Goi Maila)
AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 7ra


ESKERRIK ASKO TOLOSAko HERRIAri
Zuekin egingo diogu
www.eginbehardugu.com
EAJ PNV
www.eaj-pnv.com